

4 Euskararen ainguralekuak Arrasateko gazteen hizkuntza-portaeran. Zergatik eta non hitz egiten duten euskaraz

Itxaro Artola

Arrasate Euskaldun Dezagun – AED

itxaroartola@gmail.com

Sarrera-data: 2013-09-30 / Onartze-data: 2013-12-30

Laburpena. Arrasate euskalgintzaren ikurretako bat izan da luzaroan, ilusio eta, gehien bat, baliabide eskergak jarri direlako azken bizpahiru hamarkadetako belaunaldi berriak ingurugiro gero eta euskaldunago batean hezi eta hazteko. Hala eta guztiz ere, gutxienak dira egun komunikazio-ekintza ez formaletan eta, bereziki, lagunartean euskara erabiltzen duten gazteak. Izan badira, ordea, eta haiengana gerturatu ginen artikulu honen oinarrian dagoen ikerketa-lanean. Bi izan ziren gure asmoak: Bata, arrasatear horiengan euskaraz aritzeko gogoia eta ohitura zein faktore soziolinguistikok errotu dituzten jakitea. Bestea, zein harreman-saretan darabilten aztertuz, euskarak Arrasaten dituen berezko guneak identifikatzea. Ondorioztatu dugu etxeko hizkuntza nagusia euskara izatea erabakigarria dela oraindik gurean gazteek kalean ere erabili dezaten. Era berean, euskarak, hezkuntza araututik haratago, euskalgintzaren eta euskal kulturaren bueltan bakarrik dituela arnaguneak. • **Hitz-gakoak:** *Arrasateko gazteak, Hizkuntza-portaera, Etxea, Berezko guneak, Koadrila.*

Abstract. For a long time Arrasate-Mondragon has been a symbol of Basque language activity, because hope and, above all, vast resources have been made available to enable the new generations over the last two to three decades to live and be educated in an increasingly Basque-speaking environment. Nevertheless, the young people who use Basque in non-formal communication and particularly among friends are currently in the minority. But they certainly exist and we approached them in the piece of research on which this article is based. We had two aims: firstly, to find out which sociolinguistic factors underpin the desire and habit to speak in Basque among these inhabitants of Arrasate; secondly, to identify the spheres Basque occupies in Arrasate by analysing which networks of relations they are present in. We have concluded that Basque being the main language in the home is still decisive here if young people are to use it outside as well. At the same time, outside mainstream education, the only chance Basque has to breathe is within the context of Basque loyalism and Basque cultural activity. • **Key words:** *Young people of Arrasate-Mondragon, language behaviour, the home, natural milieux, group of friends.*

ATARIKOAK

I

Euskararen normalizazioan dihardugunon kezka nagusietako bat gazteek hizkuntzarekin daukaten harremana da. Berariaz kezkatzen gaituzte euskararekiko sumatzen dizkiegun jarrerek, erakusten dituzten hizkuntza-portaerek edota darabilten euskararen kalitateak.

Aurreko hamarkadetan zehar (eta euskararen zonalde batzuetan ia oraintsu arte) gutxienera hitzun masa kritiko bat sortzea izan zen hizkuntza bultzatzeko lanaren ardura nagusia eta horri begira jarri ziren lehentasunak eta bitartekoak oparo. Arrazoi osoz jarri ere, ezinbesteko baldintzak baitziren euskara indarberrituko bazen euskaradunon kopurua handitzea eta zeudenak alfabetatzea.

Denborak erakutsi digu, ordea, esparru horietan aritzea ez dela nahikoa euskarak osasuntsu biziraungo badu. Alegia, hezkuntzan eginiko ahalegin horri esker hizkuntza baten funtzio guztiak euskaraz betetzeko sekula izan dugun hitzun-multzorik eta, bereziki, gazteriarik prestatuena daukagun arren, eskolak ezin duela berak bakarrik hizkuntza indarberritu eta, are gutxiago, belaunaldi berrien aldetik euskararen erabilera soziala bermatu. Beraz, XXI. mendearen hastapenetan, kezka berriek garamatzate berriro euskalgintzaren arreta gazteengan ardaraztera.

Artikulu honen abiapuntu izan den ikerketa-lanean¹ ere gazteen jorkamolde linguistiko konplexu eta, ustez, kontraesankorrera hurbiltzeko ahalegin xumea egin genuen. Ustez kontraesankorra diogu, guztiz argigarri deritzegulako Jone Miren Hernándezen² hitzoi: “Gazteei loturiko arazoak edo kezkek gizarte oso baten sintomak edo metaforak dira”. Eta hizkuntzaren auzia ez da salbuespen. Ezta urte askoan euskalgintzaren ikurretako bat izan den Arrasaten ere.

Izan ere, gazte arrasatearrak hartu ditugu guk ikergaitzat. Ez, ordea, gazte arrasatear guztiak, orokorrean, tipologia linguistiko zehatz batekoak baizik: euren harreman-sare ez formaletan eta lagunartean euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak.

Arrasaten, euskararen aldeko herri mugimenduak hauspotuta, euskaraz bizitzeko soro aparta erein zaie azken hamarkadetako belaunaldi berriei. Bestalde, Hezkuntza sistema reglatuaren euskalduntzeari esker, euskarazko ikas-ereduetan izan dira matrikulatuak kasik ume guztiak, 1993an Murgiltze eredu³ abiarazi ostean. Lehenengo Ludoteka eta Gaztetxokoa ere urte horretan ireki zituen Udalak, garai hartan AED euskara elkartearen barruan ziharduen Txatxilipurdi taldearen eskariz. Haur eta gazteei jolas eta biltzeko gune euskaldunak bermatzeko urrats garrantzitsua izan zen hura, Txatxilipurdik berak

**2006 urtean ,
herriko gazteen
%77a elebiduna
zen. Elebidun
hartailea %15a
eta erdalduna,
%8a. Hizkuntza
tipologiari
erreparatuz gero,
garbi ikusten da
hezkuntza-
sistema
euskalduntzeak
portzentaje
horietan izan
zuen eragina,
EUSTATEN
arabera, gazte
elebidun
horietatik %32a
euskaldun berria
baitzen.**

**Bi galdera
nagusiri
erantzuteko
ahaleginean: zerk
bultzatu/
bultzatzen dituen
gazte horiek
euskaraz hitz
egitera eta
Arrasateko zein
espazio edota
eremu sozialetan
erabiltzen duten.**

1988tik antolatzen zituen euskal udalekuen aisialdi-eskaintza egunerokotzea zekarrelako.

Aurrekari horiekin, 2006 urtean⁴, herriko gazteen %77a elebiduna zen. Elebidun hartzailea %15a eta erdalduna, %8a. Hizkuntza tipologiari erreparatuz gero, garbi ikusten da hezkuntza-sistema euskalduntzeak portzentaje horietan izan zuen eragina, EUSTATen arabera, gazte elebidun horietatik %32a euskaldun berria baitzen. Hau da, euskara transmisio bide-kulturaletik (eskolan) jasotakoa. Euskara etxean ikasitakoak %35 ziren eta gainontzeko %10ak, jatorrizko elebidunak.

Nolanahi ere, belaunaldi gazteen euskararen erabilera urruntxo geratzen da daukaten ezagutza-mailatik. AED elkarteak 1988tik urtero egiten duen kale-neurketaren arabera, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen erabilera igotzen joan zen behaketaz behaketa, 2005 arte. Aldiz, 2006-2010 epealdian, behera egin zuen, bost puntu egin ere, %41etik %36ra. Datuok alarma gorria piztu zuten Arrasateko euskalgintzan, batez ere gazteen biztanle-multzoa zelako, bosturteko horretako batez besteko emaitzen arabera, erabileran atzerantz zihoan bakarra.

Dena dela, 2011ko neurketak etorkizunari begi itxaropentsuz begiratzeko tenorean jarri gaitu berriro, gazteen erabilerak jauzi kuantitatibo nabarmena egin baitzuen, 2006-2010 epealdiko batez bestekoaren aldean. Behaketa horren arabera, herriko erabilera orokorra bi puntu hazi zen, %34an jarriz. Gazteen artean, ordea, hamaika puntu oso, %36tik %47ra. Haur eta helduen multzoetan bakarra izan zen euskarak irabazitako puntua, %48ra eta %33ra igoz, hurrenez hurren. Adinekoen artean, aldiz, bi puntu galdu zituen, %25etik %23ra. Datuak datu, 2011-2015 epealdiko neurketen batez besteko emaitzek esango digute 2011ko hazkunde hori joera positibo baten isla izan zen ala ez.

2. IKERKETA-LANAREN JOMUGA

I

Gazteen hizkuntza-portaeren inguruko irakurketa ezkor ororen gainetik, ukaezina da badaudela egon harreman-sare ez formaletan, lagunartean, euskaraz egiteko ohitura daukaten neska-mutikoak ere. Euskaraz bizitzeko gogoia erakusten dutenak eta horretan ahalegintzen direnak.

Gazte horiek izan dira, atarikoan aipatu dugunez, gure lanaren ikergaia, bi galdera nagusiri erantzuteko ahaleginean: *zerk bultzatu/bultzatzen dituen gazte horiek euskaraz hitz egitera eta Arrasateko zein espazio edota eremu sozialetan erabiltzen duten*. Hau da, euskaraz egitera eramaten dituzten baldintzak eta motibazioak identifikatzea eta Arrasateko gazteen harreman sare euskaldunak aztertzea.

Gure abiapuntuko hipotesia izan da Arrasaten, euskararen aldeko herri mugimendu luze eta indartsua egon arren, ume eskolatu berri guztiak D ereduan matrikulatuak izaten diren arren, aisialdirako eskaintza ia erabat euskaraz jasotzen duten arren... gazteek hartu-eman ez formaletan euskaraz egingo badute beharrezko eta erabakigarria dela, oraindik ere, etxeko hizkuntza nagusia euskara izatea.

3. IBILBIDE METODOLOGIKOA

I

Egitasmoaren helburuak horiek izanik, ikerketa-metodo kualitatibora jo dugu lanerako, gazteen sentipen eta bizipenetan oinarrituz, euren barne-dimentsio sinbolikoan murgildu nahi izan dugulako. Euren pertzepzio eta barne desiretan. Asmo horrekin, hiru ikerketa-teknika erabili ditugu: *historia-bizitza*, *eztabaida-taldea* eta *hiruko taldea*.

Elkarrizketa eta talde dinamika horiek 2012ko apirila eta ekaina bitartean egin genituen, 15 eta 18 urte bitarteko hamabost gazterekin lan eginez, guztira.

Egitasmoaren proiektu teknikoa landu genuenean, gazteok hiru ardatz nagusiren arabera antolatzea aurreikusi genuen: sexua, euskararen transmisio-bidea eta eskolaz kanpoko jarduerak. Hau da, mutilak zein neskak, euskara transmisio-bide naturaletik jaso zutenak zein bide kulturaletik jaso zutenak eta aisialdian euskal kultur-taldeetan ibilitakoak zein ez ibilitakoak.

Ezinezkoa suertatu zitzaigun, ordea, asmoa bere hartan aurrera eraman, bidean topatutako hainbat zailtasun tarteko. Zailtasunak izan genituen lagunartean euskaraz aritzen diren mutilak lokalizatzeko eta, oro har, euskara soilik bide-kulturaletik jaso ondoren giro informalean erabiltzeko ohitura duten gazteak topatzeko. Ezinezko gertatu zaigunez, euskal kultur-taldeekin sekula harremanik izan gabe euskaraz berba egiteko joera dutenak aurkitzea.

Denbora mugak medio, gogoeta hutsean geratu zaigu zailtasun tekniko horiek ez ote diren, berez, arestian aipaturiko hipotesiarekin batera, Arrasaten euskaraz hitz egiteko ohitura duten gazteen eta ez dutenen arteko aldearen adierazle garbiak.

4. ZERGATIK HITZ EGITEN DUTEN EUSKARAZ

I

Lanaren emaitzak aletzen hasi aurretik, bihoa ohar gisa ikergai izandako gazteen aipu gutxi batzuk soilik ekarriko ditugula orrialde hauetara. Konturatzen gara horrek kolokan jar dezakeela gure ondorioen funtsa,

Zailtasunak izan genituen lagunartean euskaraz aritzen diren mutilak lokalizatzeko eta, oro har, euskara soilik bide-kulturaletik jaso ondoren giro informalean erabiltzeko ohitura duten gazteak topatzeko.

**Elkarrizketaturiko
gazteek
euskararekiko
erakusten duten
atxikimendua
identitate
kolektiboei lotuta
dago erabat.**

**Etxean gaztelera
soilik edo
hizkuntza biak
jaso dituztenek,
aldiz, koadrilari
ematen diote
baliorik
handiena
euskararekin
daukaten
harreman estua
azaltzeko orduan.**

partzialki baino ez dugulako erakutsiko haien oinarrian dagoena. Artikuluaren luzera-mugak gaindiezinak dira, ordea, eta jakimina duenak lanaren jatorrizko txostenean dauzka gazteon hitzak luze eta zabalago. Aurrera, bada.

Eremu eleanizetan fenomeno sozial konplexua da hizkuntzaren erabilera; hiztun bakoitzarengan, modu zuzen eta partikularrean, eragiten duten barne zein kanpo-faktore askoren ondorio psikosozio-linguistikoa. Gaia are gehiago katramilatzen da gazteei buruz ari garelarik, aldaketa pertsonal eta sozial sakonen urteak direlako. Nera-bezaro arte, familiaren eta eskolaren bitartez sozializatu da nagusiki gaztea eta arauak zein baloreak ezarri egin zaizkio nolabait. Hortik aurrera, berriz, beregainagoa izango da erabakietan eta, aukeratu ahala, bere nortasuna eraikiz joango. Tartean, identitate linguistikoari dagokiona.

Elkarrizketatu ditugun gazteek egin dute nork bere hizkuntza-hautua. Euskaraz hitz egin nahi dute, euskaraz bizi, euskararen herrian.

Euskaraz bizitzeko gogo hori nondik datorkien, aldeko zein aldagairi esker loratu den jakin nahi izan dugu guk. Horretarako, *Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketan*⁵ egindako faktoreen sailkapenaz baliatu gara.

A) Identitate kolektiboak

Elkarrizketaturiko gazteek euskararekiko erakusten duten atxikimendua identitate kolektiboei lotuta dago erabat. Etxean euskaraz hitz egiten dutenek familiarekiko kidetasun-sentimenduarekin lotzen dute batez ere. “Etxekoa”. da euskara:

“Txikitatik hitz egin dot euskeraz. Gurasoek asko markau naue txikitatik. Eskertu egitten dutziet, ze eurengatik izan ez balitz orain ez neuke hainbeste berba egingo, eta ez neuke bultzatuko”.

“Euskerarekin benetan sentiduten naz identifikauta. Politta da, etxekua, betikua eta betirako niretako”.

Etxean gaztelera soilik edo hizkuntza biak jaso dituztenek, aldiz, koadrilari ematen diote baliorik handiena euskararekin daukaten harreman estua azaltzeko orduan:

“Lagunekin egin dot gehixen euskeraz. Eskolan be bai, baiña lagunekin beti euskeraz. Ze igual gauza ezberdiña izango zan beste koadrila batekin...”.

“Nik gurasoek baino hobeto egitten dot euskaraz. Ez da bakarrik etxekua garantzitsua, gehixago da zeinekin elkartzen zaren”.

B) Haurtzaroko hizkuntza ingurunea

Gazte hauek euskaraz hazi eta hezi dituzte. Bat izan ezik, familia euskaldunetan jaio dira guztiak eta gurasoek eredu positiboa eman diete euskararekiko jarrera eta portaerari dagokienean:

“Nire gurasoak euskaldunak die, baiña umetan ez euien erabilten eta galdu egin euien, eta gero euren kabuz ahalegindu die ikesten eta oin ondo moldatzen die. Ama gaiñera irakaslia da eta ondo ikasi dau, euskaltegia be joan zan”.

“Nire aitta Soriakua da, baiña soldautzan ikasi euen euskera, nire ama ezautu euenien eta ondo ikasi dau”.

Funtsean, euskal giroa bizi izan dute etxean eta hortik kanpora ere ziurtatu nahi izan diete euskaraz bizitzeko aukera. Berbarako, denak ibili dira euskal dantza taldetan eta Txatxilipurdi elkarteak kudeatutako udaleku zein aisialdi zerbitzuetan, aurrerago euren hitzetan jasoko dugunez.

Eskolako hizkuntza-errealitatea, berriz, aldatzen joan zaie urteen buruan. Euskarazko eruedetan aritu izan dira beti eta txikitan “dena”. euskaraz egiten zutela diote. Testuinguru euskaldun hori arras erdaldundu zaie, ordea, ikaskide askoren hizkuntza-aldaketaren ondorioz. Eurak euskarari eusteko gai izan bide dira, halere:

“Bi urtetik hamabira berdinak gazten gelan eta beti euskeraz egiten geuen, baiña gero DBHn beste batzuekin juntau gitzen eta hor erdaldundu egin zan gauzia, ez dakitt zergaittik, baiña batez be mutillak...”.

“Niri (ikaskide) askok euskaraz egitten dustie, ze badakixie nik euskeraz erantzungo dotela, baiña euren artean beti erderaz”.

“Eskolan euskaraz egin dogu beti, baiña zenbat eta haundixauak izan gero eta gehixau egitten da erderaz. Guk, betikuen artien, zirkulo bat edo, beti euskeraz jarraiketan dogu”.

C) Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntza-gaitasuna da gazte hauei euskaraz hitz egiteko ohiturari eusten laguntzen dien beste faktoreetako bat. Inolako zailtasunik gabe jarduten dute euskaraz, euskalkian jardun ere, nahiz eta forma estandarren interferentziak etengabeak izan. Gaztelera-berbak eta esamoldeak ere tartekatzen dituzte, baina ez denek, eta euretako batzuek onartzen dute arazoak dituztela gaztelera aritzeko:

Inolako zailtasunik gabe jarduten dute euskaraz, euskalkian jardun ere, nahiz eta forma estandarren interferentziak etengabeak izan. Gaztelera-berbak eta esamoldeak ere tartekatzen dituzte.

***Ikergai izan
ditugun gazteek
balio biak,
sinbolikoa eta
instrumentala,
ematen dizkiote
euskarari.***

***Hala eta guztiz
ere, identitate
kulturalari
lotutako
argudioek indar
handiagoa
daukate euren
diskurtsoetan.***

“Erderia izan da beti konplikauena niretako. Laredora eta joaten gitzen oporretan eta erdara 0, fitxekin eta erakutsi biher izan eustien, ze bape ez nekixenez...”.

“Niri euskeriak balixo dust batez be komuniketako, ze beste hizkuntzetan, fatal!”.

D) Pertsona eta talde erreferenteak

Arestian aipatu dugunez, guraso edo lagun minen eredia izan da erabakigarria gazte hauen hizkuntza jarrera eta portaeran. Etxetik haratago sotilagoa izan da eragina. Irakasleak eta aisialdiko hezitzaileak aipatzen dituzte batzuek erreferente linguistiko bezala, baina guztiek, ez. Oro har ez zaie eredugarria begitantzen eurentzat erreferentziazkoak izan daitezkeen pertsona eta taldeen jokamolde linguistikoa. Alderantziz, hizkuntza-portaerak aztertzerakoan ere ikusiko dugunez, eredu desgokitzat aipatzen dituzte aipatzekotan.

E) Hizkuntzekiko jarrerak eta pertzepzioak

Gazte hauek euskarekiko erakusten duten ikuspuntua bat dator Nekane Jausorok *Baieztapenaren diskurtsoa*⁶ deitu zuenarekin. Euskara erabiltzeko dauzkaten motibazioak sentimenduetan oinarritzen dira nagusiki eta balio sinbolikoa nahiz pragmatiko-instrumentala ematen diote euskal hizkuntzari.

Nekane Larrañagak⁷ bere doktorego tesian ondorioztatu zuenez, XXI. mendeko Euskal Herriko neska-mutikoen artean hizkuntzarekiko ikuspegi funtzionala nagusitzen da eta identitate kulturalari dagozkion iritziak bigarren maila batean geratzen dira. Ikergai izan ditugun gazteek balio biak, sinbolikoa eta instrumentala, ematen dizkiote euskarari.

Alde batetik, garrantzia ematen diote euskararen balio funtzionalari Euskal Herrian bizitzeko “beharrezkoa”. delako pertzepzioa baitaukate:

“Euskeria Euskal Herrixan bizitzeko ezinbestekua da, biher dozu lanerako eta”.

“Joe baiña hemengua bazara, lanpostuetan eta, egin behar dozu euskeraz (...) Ikusten dozu gero, Kebab-ekuak eta, zabaldu negoziua eta fundamentalena ikasten daue! Hori beharrezkoa da hemen!”.

Hala eta guztiz ere, identitate kulturalari lotutako argudioek indar handiagoa daukate euren diskurtsoetan:

“Ze esaten daue hizkuntza zaharra dala eta zergatik izango gara gu kate hori apurtzen dogunak? Gaiñera nortasuna emuten dosku euskeriak, berezitasun bat, eta hori inportantia da”.

“Ikustia Euskal Herriak euki dauen historia, euseria prohibiru egin zala dikta-duriaz...Horrek markau egitten dau eta eutsi egin biher jako”.

Euskarari ematen dioten balio sinboliko hori are nabarmenago geratzen da gaztelerari eta ingelesari ematen dietenarekin alderatuz gero. Bi hizkuntza horiek praktikoak iruditzen zaizkie tresna komunikatibo gisa. Badirudi, gainera, ingelesak garbi hartu diola aurre gaztelerari gazte hauen bizi-ikuskeran. Espainiar hizkuntzarekiko arbuio zantzuak ere atzematen dira euren hitzetan. Denbora luzez euskararen aldeko frame-etan nagusi izan den dikotomiak, euskara vs. espainiera, bizirik dirau gazte hauengan:

“Ingelesa badakitt, baiña igual ez jendiak dakixen beste eta ostras! (...) Ze ointxe bertan oso inportantia iruditzen jat, ikusitta zelan doiezen lanpostuak eta hola. (...) Gaztelera, bapez... Nahiko zeuke errespetau, baiña ez, ez dauket apreziorik”.

“Ingelesa nazioarte maillan erabilteko beharrezkoa da. Euskal Herritik kanpo gaztelera minimo bat jakitea ez dau gaizki, baiña nire ustez nahikua da horrekin”.

F) Hizkuntzekiko portaerak eta egoera soziolinguistikoarekiko pertzepzioak

Gazteon portaera linguistikoa bat dator, oro har, euskararekiko duten atxikimendu sentimental eta ideologikoarekin. Euskaraz bizi nahi dute eta saiatzen dira horretan.

“Nik lehenengokotan beti euskaraz. Bestiak behar badau erderaz, ba eskatzeko, eta egingo dutzezu. Baiña, jakiten badot hamengua dala eta badakixela, beti euskeraz”.

“Kontua da zeuk ze gura dozun, ze badakitzu “baso bat ur”. eskatuta ulertuko dotzuela, ez dotzuela esango: ¿Qué?. Orduan da zuk lehenengo hitza euskeraz egittia. Horrek asko egitten dau”.

Hartara, oso kritiko dira erdaraz egiteko ohitura daukaten gazteekiko, zehazki, jarrera abertzalea hartzen dutenekiko. Berebiziko garrantzia ematen diote hizkuntza-ideologiaren koherentziari.

Gai horretan zorrotzenak elkarrizketatu gaztetxoena dira, 15-16 urte bitartekoak. Nagusienek onartzen dute hainbat arrazoi egon daitekeela inguruko gazteek, ikasketak euskaraz egin arren, lagun giroan gaztelerara jotzeko eta “ulerkorragoak”. dira. Gazteenak, ordea, ez. Ezta etorri berriekiko ere.

Ondorioztatzen dugu bizipenek eta sozializazio maila berrien bitartez Arrasateko errealitate soziolinguistikoarekin topo egiteak eraman dituela nagusienak jarrera “irekiago”. horretara. Adina lagun,

Zorrotzenak elkarrizketatu gaztetxoena dira, 15-16 urte bitartekoak. Nagusienek onartzen dute hainbat arrazoi egon daitekeela inguruko gazteek, ikasketak euskaraz egin arren, lagun giroan gaztelerara jotzeko eta “ulerkorragoak” dira. Gazteenak, ordea, ez. Ezta etorri berriekiko ere.

**Elkarrizketatu
guztiak hautu
pertsonaltzat
jotzen dute zein
hizkuntza erabili.**

gaztetxoenek baino aukera gehiago izan dute hizkuntza-erabileraren konplexutasunaz ohartzeko eta hizkuntza-gatazkako egoerak bizitzeko.

Ildo beretik ulertzen dugu nagusienak izatea gertuko batzuekin edo egoera zehatz batzuetan erdarara aldatzeko joera hartu izana aitortzen dutenak ere.

“Ikusten badozu bestiak ezin dauela, txarto pasetan dabilela euskeraz, ez dozu eukiko hor...”.

“Batzuetan aldatzen gara erdarara, ze zaila da euskera-erdera-euskera-erdera ibiltia. Arrasaten euskeraz danek dakixie, baiña erderia urten egitten jatzu normalien erderaz egitten dauenekin”.

“Batzuetan beldurragaitik edo izaten da. Ez dakitzunien bestiak badakixen, euskaraz joan eta ulertuko dotzun”.

Bestalde, jendarte posmodernoaren ezaugarri behinenetako bat sumatzen da gazte hauengan ere. Elkarrizketatu guztiak hautu pertsonaltzat jotzen dute zein hizkuntza erabili. Kezkatzen ditu euren ingurukoek portaera linguistikoak eta kontraesankor irizten diote, baina askatasun indibidualaren eremuan kokatzen dute halaber.

“Nik erabaki doten moduen euskeraz egittia, ba, beste batzuk...”.

“Inposatu ezin da egin. Erakutsi zer dauen eta bere ustien arabera aukeratuko daue”.

“Ze esaten daue “yo hablo lo que quiero”. eta arrazoia daukie, euren problema da, baiña joe, gero harro harro urtetia presuen banderia atara dauelako...”.

Egoera soziolinguistikoaren pertzepzioari dagokionez, gazteok jabetzen dira Arrasatekoaren konplexutasunaz. Garbi dute zein zonaldetan oso bestelakoak direla hizkuntzari ematen zaizkion aukerak.

“Erdialdien gehixau egitten dala uste dot eta Musakolan, edo Erguinen edo San Andresen eta, gutxiago. Hor zailtasun gehixau dau komertziotan eta euskaraz egitteko, ze askok erderaz jarraiketan daue nahiz eta jakin...”.

Euren pertzepzioak ez daude urrun errealitatetik. Erdialdea da Arrasateko auzorik euskalduna⁸ %68ko indizearekin eta, Uribarri-Urguinekin batera (%58), herriko batez besteko hizkuntza-gaitasuna (%55) gainditzen duen bakarra. Edozelan ere, Arrasaten euskaraz bizitzea posible dela uste dute. Nahi izatea eta ahalegintzea dela gakoa.

“Ez gara kontziente Arrasaten 30 urteik beherako batek beti ala beti dakixela euskeraz. Saiatu ezkerok bizi leike euskeraz.”

“Nik uste dot nahi izan ezkerok edozein lekutan egin leikela euskeraz. Falta dana da gogua”.

“Niri gustauko jatena baino gutxiaugo egitten da, ze azken baten danok dakigu. Komertziotan eta, zeuk egin ezkerok, egitten dotzue, nahiz eta ondo ez jakin. Bizi leike euskeraz Arrasaten”.

Baina, aldi berean, onartzen dute badaudela euskararen erabilerari kontra egiten dioten faktore indartsuak, beste gazteek euskaraz gehiago ez hitz egiteko arrazoitzat posibletzat jotzen dituztenak. Labur-zurrean aipatuz hiru hauek:

1) Gaitasun mugatua, batez ere bertako erregistroan aritzeko.

Arrasaten kaleko hizkera nagusia bertako euskara denez (azken belaunaldien artean euskalkiaren eta batuaren arteko nahasketa bat) erregistro horretan moldatzen ez denak erdaraz hitz egitera jotzen duela uste dute.

2) Pertsona erreferenteen eredu anbigua.

Gazteentzat erreferente diren pertsona askok hizkuntza-koherentziarik gabe jokatzeko duela sumatzen dute eta horrek erdarara eroaten dituela haiek. Guraso, irakasle eta herriko gazte helduagoen ereduak iruditzen zaizkie okerrenak.

3) Hizkuntzarekiko atxikimendu falta.

Inguruko artean euskararekiko jarrera axolagabea dutenak ere badaudela uste dute. Ez da, halere, gehien aipatzen duten faktore negatiboa, beharbada, arestian ondorioztatu dugunez, hizkuntza-hautua askatasunetik hartutako erabaki errespetagarria delako, euren aburuz.

Gazteok ikusten dizkioten oztoko horiek oso gertu daude SIADECOK⁹, 30-45 urte arteko arrasatear euskaldunen artean euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreak ikertu ostean, atera zuen ondorio nagusitik: Euskarak Arrasaten daukana “komunikazio arazoa da, zehazki, erabilera komunikatiboarekin loturiko arazoa. (...) Bere arazo nagusia, transmititu (komunikatu) eta bere burua transmititzeko duen zailtasuna da. (...) Euskara bera ez da transmititzen, ez duelako transmititzen, eta alderantziz.

Arrasaten kaleko hizkera nagusia bertako euskara denez (azken belaunaldien artean euskalkiaren eta batuaren arteko nahasketa bat) erregistro horretan moldatzen ez denak erdaraz hitz egitera jotzen duela uste dute.

Ez diote horrenbesteko pisua ematen maila makrosozialetik datorren eraginari. Indarra daukala ez dute ukatzen, batez ere telebistak eta musikak. Ulergarria ere egiten zaie erdaraz eginikoa kontsumitzea, eskaintza zabal eta hobe egiten dutela uste baitute. Dena dela, ez zaie nahikoa arrazoi iruditzen gertuko harreman sareetan euskarari uko egiteko.

Ikerketaren lehenengo zatiaren berri ematen bukatzeko, gehitu, el-karrizketatuek faktore indibidualetan eta mikrosozialetan ikusten dutela gazteok hizkuntza baterantz edo besterantz egiteko giltzarria. Gaiaz galdetuta ere, ez diote horrenbesteko pisua ematen maila makrosozialetik datorren eraginari. Indarra daukala ez dute ukatzen, batez ere telebistak eta musikak. Ulergarria ere egiten zaie erdaraz eginikoa kontsumitzea, eskaintza zabal eta hobe egiten dutela uste baitute. Dena dela, ez zaie nahikoa arrazoi iruditzen gertuko harreman sareetan euskarari uko egiteko:

“Jende askori bakarrik erderaz egiten dauen taldiak gustetan jako. Eta telebisiñua be bai, deportia ikusterakuan eta. ETBn oso gutxi emuten daue, eta Cuatron eta halakuetan kriston deporte pilo bat, luziak eta ondo esanda, eta horrek be afektau leike. Baiña ez dot ikusten eskusa moduan. Problema barik egin leike, euskaraz hitz egin eta gura dozun telebisiñua ikusi”.

“Gusto kontua da, ze nik lehen hamengo taldiak entzuten nittun, baiña gero deskubridu nittun beste batzuk eta oin gehixau gustetan jatie kanpokuak, baiña horrek ez dau kentzen euskaraz egittia”.

5. NON HITZ EGITEN DUTEN EUSKARAZ

Aurreko atalak lorratz ugari utzi digu Arrasateko gazteen hizkuntza-praktiken inguruan. Halere, bigarren galdera geratu zaigu erantzuteko: Non hitz egiten dute euskaraz? Ba ote dauka euskarak herriko gazteen testuinguru sozialean benetako arnagunerik? Ba ote euskararen aldeko hizkuntza-araurik duen espaziorik?

Galderoi erantzun guran, Jone Miren Hernández, Zesar Martínez eta Kontxi Berrio-Otxoak aisialdi guneei buruz egindako sailkapena¹⁰ hartu dugu abiapuntutzat: *gune konpartituak*, *gune monitorizatuak*, *berezko guneak* eta *gune birziklatuak*.

5.1 Gune konpartituak

Etxea eta familia

Honezkero, ikerketari ekin aurretik geneukan hipotesia baieztatzeko moduan gaude. Salbuespenak salbuespen, Arrasaten egunerokotasunean euskaraz hitz egiteko ohitura duten gazteen etxeetan euskaraz hitz egiten da, nagusiki.

Arrasaten, 2006ko datuen¹¹ arabera, herritarren %25ak erabiltzen zuen euskara etxean, hau da, ezagutza mailarekin alderatuta, arrasatear euskaldunen erdiak gutxi gorabehera. %57,5ak gaztelaniaz hitz egiten

zuen bakarrik eta %17,4ak, bietara. Elkarrizketatu ditugun hamabost gazteetatik hamabi %25 horretan leudeke. Hau da, laginaren %80a. Beste hiruak, berriz, euskara eta gaztelera hitz egiten dutenen multzoan, ama hizkuntza bakartzat gaztelera duenak ahizparekin etxean ere euskara erabiltzen duela kontuan hartuz gero.

Ikastetxeko eskolaz kanpoko jarduerak eta kirol eta kultur azpiegiturak

Arrasateko gazteak euskaraz aritzen dira, modu formalean behinik behin, eskolaz kanpoko jardueratan. Erabiltzaile kopuru aldetik, Leintz Eskola Kirola programa da nagusiena¹².

Udal titularitateko kirol azpiegiturretan, berriz, desegonkorragoa da euskaraz jarduteko aukera. Izan ere, Kiroldegia da zerbitzua euskaraz bermatzen ez duen udal zerbitzu bakarra. Baduen arren, kontratazio irizpideen bitartez, zerbitzua euskalduntzeko plangintza, langile finko guztiak ez dira gai erabiltzaileak euskaraz artatzeko. Horrez gainera, eskaintzen dituen ekintzetan ez dago hizkuntza-irizpide zehatzik eta, ondorioz, monitoreak euskaldunak izanik ere, nahikoa da euskaraz ez dakien jendeak izen-ematea, hizkuntza-arau orokorra gaztelaren alde jartzeko:

“Ni kiroldegixan nagusixekin nabil, eta han dau pertsona bat erdaraz egiten dauena eta bera datorrenien aldatu egitten da dana. Erderaz hasten da monitoria neska horrek ulertzeko...”.

“Nik uste dot Kiroldegixan gaztelerez egiten dala batez be, dabilen jendiagaittik”.

Kultur guneen inguruan gazteok apenas egin digute aipamenik. Seguruenik, azpiegitura horiek ikasteko baliatzen dituztelako, aisialdirako baino gehiago, eta hortaz “helduek jarritako”. espaziotzat joko dituzte. Bestalde, daukaten adina kontuan hartuta, Amaia Antzokia eta erakusketa aretoak ere urruntxo geratzen dira euren ohituretatik. Baiezta dezakegu kultur azpiegitura horietan langileek euskara dutela lan-hizkuntza eta lehentasunez darabiltela herritarrak artatzerakoan. Nolanahi ere, espazio publiko horiek ez ditugu euskararen arnagunetzat hartuko, euskararen erabilera normalizaturik daukaten zerbitzutzat baizik. Izan ere, kultur gune horietara arrasatear guztiak, euskaldunak nahiz ez euskaldunak, hurbiltzen dira gehiago edo gutxiago eta, beraz, ez dira euskararen eremu eskusiboak.

5.2 Gune monitorizatuak

Gune monitorizatuaren esparrua zabala da Arrasaten eta euskararen egoera, oso bestelakoa, bakoitzaren izaera eta jardueraren arabera.

Kirol taldeak

Arrasaten 27 kirol talde federatu daude eta, entitate pribatuak izan arren, AUKEA udal erakunde autonomoaren baitan dihardute. Erakunde horren barruan ez dago hizkuntza-irizpiderik ezarrita eta, ondorioz, taldeak bezain askotarikoak dira bateko eta besteko hizkuntza ohiturak¹³. Are gehiago, gazteen arabera, elkarte bakoitzaren barruan ere hizkuntza arau ezberdinak sortzen dira jokalaria talde batetik bestera:

“Guk adibidez rugbixan egitten dogu dana euskeraz eta etorri die kolonbiarrak eta (...) igual hasieran ez euien ulerketan, baiña poliki-poliki badoiez. Esaten badaue ez dauela ulerketan egitten jakie erderaz”.

“Guk gimnasia entrenatzaillarekin erderaz egitten dodu. Oin dala gutxi EGA gura euen atara eta saiatzen zan euskeria sartzen. Ahalegintzen da, baiña barregura sartzen jako eta kostau egitten jako. Gaztekerak indar gehixau daukela ikusten da. Txikixenak be hasi die erderaz egitten entrenatzaillaren kontuagatik edo”.

“Guk dana egitten dogu euskeraz futbolien, baiña bestela Mondra taldien ez dau euskeraz egitteko aukera larregi. Txikixen entrenadoriek be jakingo daue euskeraz, ze gaztiak die, baiña erderaz egitten daue”.

Kultur taldeak

XX. mendearen 80ko hamarkadan euskal kulturak loraldi polita izan zuen gurean. Eklosio haren ondotik sortu ziren, ordurako lanean ziharduten Lore Gazteak eta Txikitxu-Arroztaitz euskal dantza taldeen arri-muan, Tikitixa eskola, Erraldoi eta Kilikien Konpartsa, Ttakun! Txalaparta taldea, Goikobalu abesbatza eta Udalaxpe Txistulari taldea, besteak beste. Bertso Eskola AED euskara elkartearen barruan sortu zen 90eko hamarkadarekin.

Goikobalu abesbatzan izan ezik, aipatu talde guztietan nagusitzen da euskara barne zein kanpo komunikaziorako hizkuntza gisa eta euskararen espaziotzat har ditzakegun guneak dira. Goikobalu abesbatzak berak ere baditu gazte eta umeez osaturiko bi harrobi talde, euskaraz dihardutenak.

Erdibidean legoke Arrasate Musikal, musika eskola den aldetik, hezkuntza ez reglatuan kokatu beharko litzatekeen arren, herriko kultur eragile garrantzitsuenetako bat ere badelako sailkapen honetan kokatzen

duguna. Formazio zentro gisa Arrasate Musikalek baditu hutsuneak euskararen erabileran, eskolak euskaraz emateko gaitasunik ez duten irakasle beterano batzuk mantentzen dituelako. Eragozpen hori gaindintzen joateko hizkuntza-plan propioa du, halere, eta herrira begirako jardueratan euskara darabil lehentasunez.

Nolanahi ere, elkarrizketatu ditugun gazteen bizitzan bi dantza taldeek izan dute berebiziki presentzia eta eragina. Guztiak ibili izan dira, edo dabilta, bietako batean eta ezberrik gabe diote hizkuntza-araua euskarazkoa dela hor. Gazteetako batek horrela ulertzen du euskal kultur taldeetan euskaraz hitz egiteko ohitura egotea:

“Euskararen munduai lotutako lekuetan euskalduna da girua, baiña hori normala da, ze hor euskera nagusitzen da danoi gustetan jakulako. Euskeraz egiten dogunoi gustetan jaku giro hori, bestela ez zara joaten. Beste leku batzuetan denetarik jendia dau eta hor erderiak irabazten dau. Jende euskalduna erdizpuri dauenien, gazteleaz egiten da”.

Aisialdiko taldeak eta gaztelekuak

Hernández, Martínez eta Berrio-Otxoak aisialdi taldeak eta gaztelekuak bereizturik sailkatu bazituzten ere, guk multzo berean aztertu ditugu, Arrasaten euskara elkarrean mugimenduaren baitan baitaude kokaturik batzuk zein besteak. Izan ere, ikastetxeen ekimenetatik haratago eta euskalgintzaren esparrutik kanpora, Arrasaten ez dago urte osoan zehar gazteentzako berriaz antolatutako aisialdi jarduerarik, ez eta talderik ere.

Gazteentzako propio sorturiko aisialdi talde bakarra AEDko *Ttak! taldea* da. Gaztelekuak, berriz, 1994an AED elkarteko lantalde izateari utzi eta bere bideari ekin zion Txatxilipurdi elkarteak kudeatzen ditu, herriko hiru ludotekak bezalaxe. Udal titularitateko zerbitzu horiek kudeatzeaz gainera, uztailleko udalekuak eta Txikilandia, Gabonetako jolas-parkea, antolatzeaz ere arduratzen da, besteak beste, Txatxilipurdi.¹⁴

Ludoteketan hiru urtetatik hamabi urte bete artean aritzen dira umeak eta familiak matrikula sinboliko bat ordaindu behar dute urteko. Gaztelekuetan (Arrasaten Gaztetxoko eta Gaztegune izenez ezagutzen diren lau gunek) hamazazpi urte arte jardun dezakete erabiltzaileek. Udalekuetan eta *Txikilandian* ere hiru eta hamazazpi urte bitarteko haur eta gazteei zuzendutako eskaintza egiten du Txatxilipurdik. Adin horretatik aurrera aukeran daukaten aisialdi talde bakarra arestian aipaturiko *Ttak! taldea* da.

Aurreste daitekeenez, AEDko talde horretan euskarazkoa da hizkuntza-araua. Txatxilipurdik kudeatutako gunetan, berriz, konplexuagoa

Elkarrizketatu ditugun 15 gazteetatik gehienek hitz egiten dute koadrilan euskaraz, baina lauk, ez. Nahiko luketen arren, euren koadrilek gazteleerako erabateko joera dute, partaide guztiak euskaldunak izanik ere.

**Gazte hauen
pertzepzioen
arabera, oso
gutxi dira
Arrasaten, euren
adinean,
euskaraz hitz
egiteko ohitura
daukaten lagun
taldeak. Eta
daukatenak
neskek
osaturikoak dira,
jeneralean.
Gogoratu
ikerketa
burutzeko
euskararako
joera garbia
daukaten mutilak
topatzeko izan
ditugun lanak.**

da egoera. Berez, Txatxilipurdiren misioa Arrasaten euskararen normalizazioa bultzatzea izanik, aisialdi zerbitzu horiek euskararen arnagune izateko izan ziren sortuak eta bertako hezitzaileen betebeharrerako bat da gazteei beti euskaraz hitz egitea. Hizkuntza-arau hori neurri oso handi batean betetzen dute erabiltzaileek ere hamabi urte artekoiei zuzendutako zerbitzuetan, hots, ludotekatan. Jo daitezke, berez, euskararen arnagunetzat. Aldiz, Gaztetxoko eta Gaztegunean nahasiagoa da hizkuntza-erabilera. Hezitzaileek euskaraz hitz egin arren, erabiltzaileek sarri ez dute eredu bera jarraitzen, eta horrek kolokan jartzen du gune horien funtzio linguistikoa. Edo, gutxienez, arnagune izateko asmoa. Edozelan ere, orokorrean, gazteek Txatxilipurdi elkartearen jardueraren osoa lotzen dute euskararen munduarekin:

“Betidanik ibilli naz Txatxilipurdin, udalekuetan eta ludotekan, eta euskeria bultzaketan dauenez, beti euskeraz. Gaztetxokuetan ez hainbeste”.

“Gu gaztetxokora joaten gizen, gehixen bat Erguina, eta monitoriekin beti euskeraz, baiña bestela, denetatik, kalien moduen, batzuk bai, baiña beste batzuk ez”.

5.3 Berezko guneak eta gune birziklatuak

Hernández eta besteek Berezko guneak eta Gune birziklatuak bereiztu bazituzten ere, guk multzo berean aztertu genituen, gazteek denbora librean egoteko askatasunez aukeratutako espazioak kontsideratzen ditugulako denak. Dena dela, ez ditugu aztertuko ikerlariok bi multzo horietan jasotako gune guztiak, kontaktatutako gazteen bizitzan ohikoak direnak baizik. Bestalde, Berezko guneei beste bat gehitu diogu guk: Koadrila. Espazio fisiko mugatu bat ez diren arren, koadrilak antolaketa zehatz eta itxiak izaten dira. Ikusi ez arren, sentitzen diren paretak dituztenak. Lagun kopuru zehatz baten bilgune izaten direlako; lagun horiek aisialdirako eratu duten berezko gunea; berezko ohitura eta arauak dituen; baita linguistikoak ere. Bertatik abiatuko gara.

Koadrila

Elkarrizketatu ditugun 15 gazteetatik gehienek hitz egiten dute koadrilan euskaraz, baina lauk, ez. Nahiko luketen arren, euren koadrilek gaztelerarako erabateko joera dute, partaide guztiak euskaldunak izanik ere. Ondorioz, ezagun da hizkuntza-gatazkako egoerak bizi izaten dituztela:

“Gu hamar inguru gare koadrillan, ointxe mutillak bakarrik, eta ni eta beste bat gare euskeraz egiten dogunok. Bestiek badakixie baiña ez daue egiten, eta

depende ze jaixetan gogua emuten dotzu beste batzuekin joateko euskeraz egitteko. Ze euskalduna bazara egin euskeraz jode!”.

“Uf, nekatu egitten zara, zu euskeraz eurak erderaz, zu euskeraz eurak erderaz”.

Gazte hauen pertzepzioen arabera, oso gutxi dira Arrasaten, euren adinean, euskaraz hitz egiteko ohitura daukaten lagun taldeak. Eta daukatenak neskek osaturikoak dira, jeneralean. Gogoratu ikerketa burutzeko euskararako joera garbia daukaten mutilak topatzeko izan ditugun lanak:

“Guk txikitatik egitten dogu euskaraz kuadrillan, beti egin dogu horrela, juergatan eta be bai. Baiña, gure inguruen, gure kuadrillia da bakarra beti euskeraz egitten dauena. Badakitt beste neska batzuk be laster hasiko diela, baiña bestela...”.

“Neskek gehixau egitten dogu kontzientzia gehixau daukegulako, buelta gehixau emun dutzeu tema hone!”.

“Nik badauket harremana geure adineko mutillekin be eta euskeraz perfektu dakixie, baiña gero juntetan die euren artien eta dana erderaz”.

Sexuari (edo, akaso, hobe genero rolei?) lotutako ñabardurak alde batera, badirudi gazteleraz hitz egiteko joera orokorra dela Arrasateko gazte koadrilatan. Gazteen ustez lagunarteko joera hori areagotu egiten da gauetan, parranda giroan. Badirudi, egunean zehar, nor bere betiko lagunekin eta, ziur aski, taldearen gune birziklatu kuttunenean daudelarik, errazago eusten diotela umetako ohiturari. Aitzatik, gaueko giroan sozializatzeko orduan, erdararen uholdeak harrapatzen dituela *malgutasun diglosikoak*¹⁵ (I. Martínez de Luna, 2011) eramanda:

“Arrasaten euskeraz dakixe danek, baiña gauzia da urten egitten jatzula normalien erderaz egitten dauenekin. Inkomodo daz batzuk euskeraz eta orduan komodo egoteko bixok erderara pasetan gare (...) ze zaila da euskera-erdera-euskera-erdera ibiltzia”.

“Gero, gabetan eta da diferentia. Atsaldien egitten da gehixau euskeraz eta gabien erderara jotzen dogu, tontekerixia edo, baiña nik ja normalizat jotzen dot erdarara aldatzia, da un euskañol, ez dust txoketan. Dana erderaz bada bai, baiña hori be ez da emuten gure artien”.

Taberna zonaldeak eta gaztetxea

Esan dugunez, tentsio eta ukazio egoera horiek gauez ematen dira nagusiki, hau da, taberna zonaldeetan eta giro berean koka dezakegun Gaztetxean.

**Gazteen ustez
lagunarteko joera
hori areagotu
egiten da
gauetan,
parranda giroan.**

Gaztetxeak aipamen berezia merezi duelakoan gaude, gazte hauek euskal giroarekin gehien lotzen duten gunea baita. Edozelan ere, garbi bereizten dituzte, alde batetik, espazioa kudeatzen duen Asanbladaren jarrera eta, bestetik, bertan egiten diren ekintzetan eta, berariaz, gaueko kontzertuetan ematen diren hizkuntza-harremanak. Asanbladak euskaraz funtzionatzen du nagusiki eta, horri esker, euskararen gunetzat jotzen dute. Are gehiago, beste gazte batzuen hizkuntza-portaeran eragin positiboa izaten duelakoan ere badaude.

Aldiz, taberna edo kontzertuetarako espazio gisa, Gaztetxea ez da larregi ezberdintzen herriko besteetatik.

“Ni adibidez asanbladan nau eta hor egin die ekintzak euskara bultzatzeko be. Baiña segun ze kontzertutan eta, igual DJak eta badaz, giro ezberdiña egoten da. Igual barran eta gauzak ezberdin die, seguru asko eragingo dau jendiak asanbladakuak eta euskaraz ikustiak. Ze igual etorten da jendia asanbladara kontzertu bat emuteko eskatzen eta, eta saiatu egitten die euskeraz egitten, kalien erderaz egin arren be. Eta hori ondo dau, ti!”.

“Gaztetxien normalien euskal girua dau eta giro hori gustean jakie euskeraz gehixen egitten daueenei”.

“Niretako Gaztetxien izaten da segun zer dauen. Kontzertuaren arabera erderaz be asko entzuten da”.

Oro har, gazteok ez dute taberna bat ere lotzen bete-betean euskaraz hitz egiteko ohiturarekin, nahiz eta erdialdean kokaturik daudenetan beste zonalde batzuetakoetan baino gehixeago egiten delakoan dauden. Edozelan ere, erdialdeko taberna ingurua jarrera abertzalearekin lotzen dute orokorrean eta, hortaz, koherentzia ideologikoagatik, beharko litzatekeena baino gutxiago entzuten dela irizten diote. Laburbiduz, esan dezakegu Arrasateko gazteen berezko aisialdi guneen artean ez dagoela eurentzat euskararen erreferente garbirik, Gaztetxeko asanblada salbu. Betiko koadrila da zenbait gazterentzat solasaldi bat euskara hutsean aurrera eramateko gune posible bakarra edo bakarrenetako bat. Beste batzuentzat, ezta koadrila ere.

6. ONDORIO NAGUSIAK

I

Amaitze aldera, hona hemen ikerketa-lanetik atera ditugun ondorio nagusienak:

— Etxeko errealitate linguistikoa giltzarri nagusia da oraindik Arrasateko gazteen euskararekiko atxikimendu eta erabilera ohituratan. Arrasaten ere, etxean euskaraz hitz egitea funtsezkoa da kalean ere erabiltzeko.

Herriaren ezaugarri demolinguistikoak kontuan hartuta, premisa horrek ataka estuan jartzen gaitu etorkizunari begira. Aurreikusi daiteke ama hizkuntza gaztelera izango duten arrasatear euskaldunak geroz eta gehiago izango direla. Hartara, familia bidezko transmisioari bultzada esanguratsu bat eman ezean, eta, bereziki, jatorri elebiduneko euskaldunek euren seme-alabei euskara ama hizkuntzatzat eman ezean, saihestezina izango da belaunaldi berri horientzat euskara bigarren hizkuntza izatea eta, ondorioz, euren egunerokoan gaztelarako joera nagusitzea. Dela euskararekiko atxikimendu berezirik ez dutelako, dela gaztelera aritzeko askoz gaitasun handiagoa dutelako. Alegia, *aurreko belaunaldiek egindako saioa hurrengo belaunaldietara proiektatzeko gai ez garen heinean, belaunaldi bakoitzak hutsetik abiatu beharko du berriro euskalgintzan.* (Mikel Zalbide¹⁶).

— Jendarteko hizkuntza-arau gisa gaztelera nagusitzen den tokietan, barbarako Arrasaten, eskolaren euskalduntze-lana motz geratzen da euskara harreman-sare ez formaletako hizkuntza bilakatzeko. Joera hori emango bada ezinbestekoa da ingurune hurbileko beste gune batzuetan ere, eta bereziki lagunartekoan, euskara erabiltzeko ohitura errota egotea. Gainontzean, euskara eskolako transmisio-bide kulturaletik hartu dutenak nekez iristen dira Txepetxek “hiztun oso”. deiturikoa izatera.

Beraz, egunerokotasunean euskara erabiltzeko motibazioa izango badute beharrezko jarraitzen du izaten, ume askorentzat euskararen arnagune bakarra izan daitekeen eskolaren lana sendotze aldera, bizimodu arruntean eta berariaz aisialdian, hau da, transmisio kulturalari jarraipena ematen zaion eremu sozialetan, euskara hutsezko gune eta uneak bermatzea eta daudenak erakargarri egitea.

Zalbidek¹⁷ badu proposamen, gure iritzirako, eztabaidagarri bat, eskolak jokatu beharko lukeen funtzio linguistikoaz: *Eskolak euskaraz diharduen eguneroko bizimoduarekin konektatu behar ditu gazteok (...). Mundu itxia bihurtzeko arriskua dute eskolek. Lan-mundu isolatua*

Familia bidezko transmisioari bultzada esanguratsu bat eman ezean, eta, bereziki, jatorri elebiduneko euskaldunek euren seme-alabei euskara ama hizkuntzatzat eman ezean, saihestezina izango da belaunaldi berri horientzat euskara bigarren hizkuntza izatea eta, ondorioz, euren egunerokoan gaztelarako joera nagusitzea.

**Gazte
batzuentzat
errefortsu
baliagarriak
izaten dira
euskarazko
aisialdi
jarduerak, baina,
oro har,
ezarritako
hizkuntza-
arautzat ulertzen
dute gune
horietan ematen
dena eta,
ondorioz, handik
kanporako balio
ez diena.**

bihurtzeko arriskua dute. Gizartearen eguneroko bizimodu arruntetik isolatzen diren neurrian, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko duten ahalmena ere kamustu egiten zaie eskolei, gesaldu eta, azkenean, ezabatu. Euskarazko auzogintza osasuntsu eta gizarte-osaera arnas zabaleko batean txertatu behar dira eskolak, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan berariazko ekarpen sendorik egingo badute. Euskarazko ingurumen arruntean txertatu behar dute gazte horiek beren jarduna eta, lehenengo edo beranduago, beraiek bezala euskaraz jarduten duten eta euskarazko bikote-bizitza eraiki nahi dutenekin elkartu, euskal familia bat sortuz.

Guetoak sortzeko arriskua alde batera, Zalbideren iritzia eztabaidarria iruditzen zaigu nerabeak euskarari uko egitera eramaten dituen motibazioetako bat ordura arte bizi tankera antolatu eta nolabait inposatu dieten instituzioen kontra egiteko gogoia izaten delako. Hau da, etxearen eta eskolaren kontra errebelatzekoa. Hori aintzat hartuta, dudan jartzen dugu eraginkorra ote den euskararen erabileraren kateari, fisikoki eskolaz kanpo izanik ere, gazteen burmuinekin eskolarekin lotura ikus dakiekeen ekintzen bitartez jarraipena ematen ahalegintzea. Azken batean, eskolaren ekimen izango diren aldetik, bideratutako ekintzak ere izango dira. Hau da, gazteek nahi duten autonomiaren kontrakoak.

Aje hori, ikastetxeetako eskolaz kanpoko jardueratan ez ezik, aisialdi antolatuan ere suma daiteke. Gazte batzuentzat errefortsu baliagarriak izaten dira euskarazko aisialdi jarduerak, baina, oro har, ezarritako hizkuntza-arautzat ulertzen dute gune horietan ematen dena eta, ondorioz, handik kanporako balio ez diena.

— Aurreko ondorioari jarraiki, lehentasunezkoa da gazteen *berezko guneetan* eragitea.

Gazteen ikuspegitik monitorizatu gabe erabiltzen dituzten guneak dira aisialdirako berezko tokiak. Helduen mundutik at eurenenganatzen dituzten espazioak izanik, gune horietan sentitzen dira protagonista. Horietan sentitzen dira nor eta, ondorioz, horietan ikusten dute islaturik euren gazte-identitatea. Dela koadrilaren baitan, dela taberna, lokal edo bestelako espazio ireki nahiz birziklatuetan. Jone Miren Hernandezek dioenez, gazteek aisialdiaren bitartez eraikitzen dute hein handi batean euren bizimodua. Sinbiosi moduko bat ematen da gazte izatearen, gazte identitatearen eta aisialdiaren artean. Eta, beraz, euskara hizkuntza-arau daukan espazio batean gustura sentitzen denak, espazio horrekin identifikatzen denak, ohartzeke egingo du bere euskararen aldeko hautua toki horretan. (J M Hernández, 2010).

— Posmodernitatearen joera indibidualista atzeman daiteke gazteen hizkuntza jarrera eta portaeratan.

Gazteek eroso daudelako, ondo sentiarazten dituelako, pertsonalki horrek asetzen dituelako eta gaitasun osoa dutelako egiten dute euskaraz. Barne motibazioak nagusitzen dira eta bigarren edota hirugarren plano batean geratzen, hizkuntzaren balio kulturalari eta egoera soziolinguistikoari lotutakoak. Hartara, garrantzitsua da gazteei eta, berariaz, motibazio propioen faltan daudenei euskararen alde apustu egiteko balio erantsiak ematea. Aisialdiaz gozatzeko aukerak eta kontsumo-eskaintza areagotu eta gerturatzea, berbarako.

— Arrasateko gazteak komunikazio ez formalean gaztelaniara jotzera eriatzen dituen faktore nagusiak **hizkuntza-gaitasun mugatua** (nagusiki euskalkian aritzeko) eta aurreko belaunaldiengandik jasotako **eredu desegokia dira**. Belaunaldiz belaunaldi errepikatzen den sorgin gurpila izanik, etorkizun iluneko euskara begitantzen zaigula Arrasatekorena.

— **Iraganeko diskurtso ideologikoetan trabatuta gaude**. Gaztelera eta euskararen arteko dikotomia bizi-bizirik dago gazte hauengan. Horrek pentsarazten digu, gazteen ikuspegi gatazkatsu horretan eragin ezean, hizkuntza borroka areagotzeko arrisku handia dagoela, batez ere, gaur egungo gazteen bizi ikuskera postmodernoan norbanakoaren askatasunak lehentasun osoa daukalako. Baita hizkuntzaren erabilerari dagokioenez ere. Hau da, hautu pertsonala da hizkuntza jakin bat erabiltzea, baina baita ez erabiltzea ere, eta biak begitantzen zaizkie eskubidezko. Ikuspegi horrek samur egingo du talka abertzaletasunean oinarritutako diskurtso batekin.

— **Malgutasun diglosikoan erortzeko arriskua atzematen da** euskararako joera dutenengan ere. Hizkuntza-koherentziari garrantzia ematen dutenek ere jendarteko harreman sare zabalagoetara jauzi egiten dutenean ingurukoekiko komunikazioa lehenetsi ohi dute, euskarari eusteko motibazioen ginetik. Horrek hizkuntza ordezkapena ekar dezake jatorriz euskaraz diharduten lagunarte horietara, adinean aurrera egin ahala ugalduz doazen harreman-sareetan erdararako joera nagusi bada.

— **Neskek euskaraz hitz egiteko ohitura handiagoa dute mutilek baino**. Fenomenoa ez da berria eta susmoa daukagu horren atzean jendarte eredu patriarkalak ezarritako genero rolen banaketaren zama dagoela. Hau da, mutilak modu ez kontzientean boterearekin eta indarrarekin lotzen dugun gaztelerara makurtzen direla, neskek egoera gutxiagotuan dagoen euskararen zaintza euren gain hartzen

Posmodernitatearen joera indibidualista atzeman daiteke gazteen hizkuntza jarrera eta portaeratan.

Gazteek eroso daudelako, ondo sentiarazten dituelako, pertsonalki horrek asetzen dituelako eta gaitasun osoa dutelako egiten dute euskaraz.

Barne motibazioak nagusitzen dira eta bigarren edota hirugarren plano batean geratzen, hizkuntzaren balio kulturalari eta egoera soziolinguistikoari lotutakoak.

**Neskek euskaraz
hitz egiteko
ohitura
handiagoa dute
mutilek baino.
Mutirik modu ez
kontzientean
boterearekin eta
indarrarekin
lotzen dugun
gaztelerara
makurtzen
direla, neskek
egoera
gutxiagotuan
dagoen
euskararen
zaintza euren
gain hartzen
duten bitartean.**

duten bitartean. Portaera-ezberdintasun hori gainditzetik izango ote genuke euskalgintzaren diskurtsoa ekologiararen eta feminismoaren iturrietatik edanez eta, funtsean, justizia sozialean oinarrituz eguneratuz gero?

— Etxetik eta hezkuntza mundutik haratago, **bakanak dira Arrasateko gazteen eremuetan euskararen arnasmuneak**. Euskal kultur taldeak, AEDko Ttak! taldea, Txatxilipurdi elkarteak kudeatutako aisialdi zerbitzuak eta Gazte asanblada dira gazteek gaur egun euskararekin lotzen dituzten espazio bakarrak. Euskara etxean jaso edota erabiltzen duten gazteak ondo sentiarazten dituzten espazioak dira, eroso dauden hizkuntzan aritzeko aukera daukaten heinean. Aldiz, euskara bide kulturaletik eurenganatu dutenentzat hizkuntza-errefortsu garrantzitsu izan daitezke, euskal giroan murgiltzeko eta, bide batez, euskarari eusteko parada eskaintzen dietelako. Hor dago bada, Arrasaten, elikatu eta saretu beharreko ingurunea. Hortik kanpo, kirol munduan esate batera, eragiten jarraitu beste aukerarik ez dago, ahalegin pertsonal handia eskatzen baitu oraindik esparru horretan euskaraz jardun gura izateak. ●

OHARRAK

1. "Euskararen aingurak Arrasateko gazteen hizkuntza-praktikatan. Zergatik eta non hitz egiten duten euskaraz". HIZNET hizkuntza-plangintzagraduondokorako sakontze egitasmoa, 2011-2012 ikasturtea.
2. HERNANDEZ GARCIA, Jone Miren (2010). *Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur*.
3. B ereduan ez bezala, eskolak euskara hutsean ematen dira Murgiltze ereduan. Horrela, 2005-2006 ikasturtean, HH, LH eta DBHko 69,68k D ereduan ziharduten, %27,44k Murgiltze ereduan, %2,5 B ereduan eta %0,036 A ereduan. Batxilergoan eta Hezkuntza zikloetan, berriz, A ereduan ikasten zuten %16k eta D ereduan, %84k. Datuok EAEko datu orokorrekin alderatuz gero, nabarmen goitik zeuden Arrasatekoak. Izan ere, ikasturte horretan, EAEko ikasleen %62,7 zebilen D ereduan, %29,5 B ereduan eta %7,8, A ereduan.
4. Iturria: EUSTAT, 2006ko errolda, bi urtetik gorako biztanleei buruzko datuak. Aipatu behar da errolda horretan euskarari buruzko datuak ez zela jaso eta, horren ordez, estimazio moduko batzuk egin zituela EUSTATEk. Uste izatekoa da, beraz, metodologia aldaketa horrek izango zuela eraginik emaitzetan eta kontuan hartzeko moduko faktorea iruditzen zaigu. Izan ere, bost urte lehenago EUSTATEk berak jasotako datuen arabera, herriko gazteen %88a ziren euskaldunak. Ia euskaldunak % 8 eta erdaldunak, % 4. Baina, aldi berean, pentsa daiteke gaur egungo datuak oso gertu egongo direla 2006koetatik, azken urteetan erroldatu diren jatorri atzeritarreko herritarrek ez direlako euskaldunak. Datu errealik ez dugun arren, aurreikus daiteke migrazio fluxu horrek eragin zuzena izango zuela euskararen ezagutza maila orokorrean eta, bereziki, gazte eta haurren porzentajeetan.
5. Aipatu azterketa 2009an gauzatu zuten lankidetzan Topaguneak, Soziolinguistika Klusterrak eta Urtxintxa Eskola Elkartek.
6. JAUSORO, Nekane (1996) *La práctica discursiva y el interdiscurso. Una propuesta metodológica para la investigación social del euskera*. Leioa: EHU. Jausorok hiru diskurtso

mota aipatzen ditu euskararen inguruan: Baieztapen diskurtsoa, Axolagabekeriaren diskurtsoa eta Ukapenaren diskurtsoa.

7. LARRAÑAGA, Nekane (1995). *Euskararekiko jarrerak eta jokabideak. Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzeko.*

8. Iturria: EUSTAT, 2001eko zentsua.

9. SIADECO etxeak 2010ean egin zuen, AED euskara elkartearen eskariz, *Arrasaten euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreen azterketa kualitatiboa.*

10. MARTÍNEZ, Zesar; BERRIO-OTXOA, Kontxesi; HERNANDEZ, Jone Miren (2002). *Gaztetxoak eta aisialdia. Etorkizuna aurreikusten 2001-2002.* EusArgitarapen zerbitzua. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 2002

11. Iturria: Eustat.

12. Hamalau urte arte Leintz Eskola Kirola proiektua daukate, non monitore guztiak euskaldunak diren. Eskolaz kanpoko jarduera boluntarioa izan arren, bailarako ikastetxe guztiek parte hartzen dute ekimenaren kudeaketan, Udalekin batera.

13. AED elkarteko Bultza taldeak eragite dinamika bat jarri zuen abian 1012an, AUKEAko kirol taldeetan euskararen erabilera bultzatze aldera. Lehenengo emaitzak eman ditu honezkeron, jardunean dauden AUKEAko 27 taldeetatik 19 konprometitu baitira hasieratik taldeetako egiturari euskara arduradun bana izendatzera eta hizkuntza plangintza baterako egoeraren diagnosis egitera. Beste zazpik parte hartzeko interesa agertu dute eta bakarrak eman du ezezkoa.

14. Txatxilipurdik ez ezik, Arizmendi ikastolak ere badauka bere udaleku proiektua HHTik Batxilergora arteko ikasleei zuzendua.

Martinez de Luna, Iñaki (2010) *Hizkuntza-diskurtsoaren gaineko gogoeta* in: Topaberri 63. Abadiño: Topagunea, 12-15 or.

15. ZALBIDE, Mikel (2011). *Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka.* In: BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 79-80.

16. ZALBIDE, Mikel (2007). *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: baliostapen-saioa.* Bilbo: Euskaltzaindia.

BIBLIOGRAFIA

AMONARRIZ, Kike (2011) (argitaratu gabe). *Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea.* HIZNET, Hizkuntza Unibertsitateko Espezialista. Donostia: UPV- EHU. 2011

ARRASATEKO UDALAREN EUSKARA ZERBITZUA (2010). *Euskararen ezagutza Arrasaten 1981-2006 aldian.* Arrasate-mondragon.org. (<http://www.arrasate-mondragon.org/udala/udal-sail-eta-zerbitzuak/euskara/beste-gai-batzuk/euskararen-ezagutza-arrasaten>). 2010

ARRASATEKO UDALAREN EUSKARA ZERBITZUA (2012). *Euskararen kale erabilera Arrasaten 1988-2011 aldian.* Arrasate-mondragon.org. (<http://www.arrasate-mondragon.org/udala/udal-sail-eta-zerbitzuak/euskara>).

AZTIKER, (2009). *Gipuzkoako gazteak eta politika, 2009. Azterketa kualitatiboa.* Gipuzkoa.net. (http://www.gipuzkoa.net/noticias/archivos/gazteaketapolitika2009_kualitatiboa.pdf). 2012

BASURTO, Asier; PEREZ, Sonia; ALTUNA, Jaime (2010). *Gazteen erabileraren korapiloa begi-bistan.* Udaltop.com. ([Http://www.udaltop.com/](http://www.udaltop.com/)

- fitxategiak/dokumentuak/dokumentazioa/gazteen-erabileraren-korapiloa-begi-bistan-2.pdf). 2012
- HERNANDEZ GARCIA, Jone Miren (2011). *Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur.* Euskaltzaindia.net. (<http://www.euskaltzaindia.net/dok/plazaberrri/2011/hernandez.pdf>). 2012
- JAUSORO, Nekane (1996) *La práctica discursiva y el interdiscurso. Una propuesta metodológica para la investigación social del euskera.* Leioa: EHU.
- JUARISTI, Patxi. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak.* Argitalpenak.ehu. http://www.argitalpenak.ehu.es/p291-content/eu/contenidos/libro/se_ccsspdp/eu_ccsspdp/adjuntos/Gizarte%20Ikerketarako%20teknikak.pdf). 2012
- LARRAÑAGA, Nekane (1995). *Euskararekiko jarrerak eta jokabideak. Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzeko.* (http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Nekane_Larranaga_TESI.pdf). 2012.
- MARTÍNEZ, Zesar; BERRIO-OTXOA, Kontxesi; HERNANDEZ, Jone Miren (2002). *Gaztetxoak eta aisialdia. Etorkizuna aurreikusten 2001-2002.* EusArgitarapen zerbitzua. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 2002
- MARTINEZ DE LUNA, Iñaki (2010). *Hizkuntza-diskurtsoaren gaineko gogoeta* in: Topaberri 63. Abadiño: Topagunea, 12-15 or. 2010
- SIADeco (2010). *Arrasaten euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreei buruzko Oxelketa kualitatiboa.* Donostia: SIADeco.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA. (2011). *Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku-hartzeko gida. Erabileraren GPSa.* Andoain: Soziolinguistika klusterra.
- ZALBIDE, Mikel (2007). *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioestapen-saioa.* Bilbo: Euskaltzaindia.
- ZALBIDE, Mikel (2011). *Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka.* In: BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 79-80. Soziolinguistika Klusterra. Andoain.